



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio **protokoloa**

2018ko otsaila

Sarrera

Honako ebaluazio protokolo hau gidaliburu bat da, irakasleei programan erabilitako irizpideen, adierazleen eta pisuen berri emateko aukera eskaintzen duena.

Hona hemen dimentsioen eta azpidimentsioen garrantzia:

DIMENTSIOA ETA GARRANTZIA (%)	AZPIDIMENTSIOA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
0. Irakaskuntza enkargua	Faktore zuzentzaile gisa dihardu	
1. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena (% 50)	1.1. Gaien irakaskuntza plangintza	25
	1.2. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena	25
2. Emaitzak (% 20)	2.1. Arrakasta tasak	10
	2.2. Ikasleek duten iritziari buruzko inkesta	10
3. Irakaskuntzaren garapen profesionala*. (% 30)	3.1. Irakaskuntza-lidergoa	6
	3.2. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak	10
	3.3. Prestakuntza	12
	3.4. Goi Mailako Hezkuntzan irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak	12
	3.5. Hedapena	6

(*)3. dimentsioan, irakasleen garapen profesionalari dagokionez, azpidimentsioen gehienezko balioen batura 46 puntura heltzen den arren, gehienezko puntuazioa beti 30 puntukoa izango da.

Azken ebaluazioa era honetan sailkatuko da:

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da Irakaslearen Amaierako Txostenean 100 puntutik **50** puntu baino gutxiago lortzen dituen.

Aldeko ebaluazioan hiru kategoria bereizten dira

- Onargarria: ebaluazioa onargarria izango da Irakaslearen Amaierako Txostenean 50 eta 70 puntu artean lortzen dituen.
- Oso ona: ebaluazioa oso ona izango da Irakaslearen Amaierako Txostenean 70 puntu baino handiagoa edo berdina lortzen dituen.
- Bikaina: Ebaluazio bikaina izango du 1., 2. zein 3. dimentsioetan aurreikusitako gehienezko puntuazioaren % 90a edo handiagoa lortzen duena

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. DIMENTSIOA. - Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

1. *dimentsioaren helburua*: Irakaskuntza plangintzaren kalitatea balioestea. Era berean, egiaztatuko da ea irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena bat datorren tituluaren ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin.

1.1. *Gaien plangintza*

Ikasle Gidak bi eginkizun ditu: irakasgaia aurkezteko bitarteko nagusia da eta, era berean, irakasle eta ikasleentzako bide-orri ere bada ikasturtean zehar. *Ongi egituraturako gida osatuak* eskaini behar dituzte UPV/EHUko irakasleek, ikaskuntza bermatzeko informazio nahikoa ematen dutenak, *eta argi idatzita daudenak, ikasleek ulertzeko moduan*.

Ikasle Gida irakaskuntzaren plangintzarako tresna bat da, eta, aldi berean, hausnartzeko gune bat ere bada irakasleentzat. Hori horrela, espero da UPV/EHUko irakasleek ondo garatzea eta jasotzea bertan ikasketa-planetan haien ardurapeko irakasgaietarako egiten diren aurreikuspenak. Horretarako, irakasgaien landuko diren gaitasunen ikuspegi zabala eskaini behar da, eta baita ikaskuntza-prozesuaren emaitza zehaztu ere. Horrez gain, ikasleen ardurak eta zereginak ere zehaztasunez jaso behar dira, besteak beste.

Ikasle Gidak barne-koherentzia nabarmena izan behar du. Horretarako, ondo lerratuta egon behar du osagai guztiek: jarduerak, gaitasunak, ikaskuntza-prozesuaren emaitzak, metodologia eta ebaluazio-irizpideak, bereziki.

Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak irakaslearen espedientearen ebaluazio osoa egiteko, nahitaezkoa izango da ebaluaziorako aurkeztutako Ikasle Gidak deialdiaren 3. oinarrian eta Eskuliburuaren Ebaluazio Prozesua atalean zehaztutako baldintzak betetzea

Irizpidea: Ikasle Gida egituratua, osatua eta argia (Irizpidearen garrantzia: 25etik 10)		
1. adierazlea: Irakasgaia eta irakasleak identifikatzeko datuak ematen ditu		
0-1-2	3	4-5
0.- Ez 1-2.- Nahasia edo oso azalekoa: irakasgaiaren izena, kredituak, irakasleak.	Oinarrizko irakasgaiaren titulazioa, irakasgai irakasleak datuak: izena, kredituak, mota eta	4- Datu osagarriren bat emansten du 5- Osoa: irakasgaiaren izena, ikastegia, saila, titulazioa, maila/modulua, lau hilabetea, kreditu kopurua, taldeak eta irakasleak (nortzuk diren, bulegoa eta kontaktua)

2. adierazlea: Irakasgaia titulazioari dagokion arloaren testuinguruan kokatzen du		
0-1-2	3	4-5
0.- Testuingururik ez 1-2.- Oso azalekoa	Irakasgaia ondo kokatzen da maila/modulu/graduan eta ikasketa planaren beste irakasgaiekin erlazionatzen da	4- Datu osagarriren bat eransten du 5-Osoa: lekua, beste irakasgaiekiko lotura, bete beharreko alde zureko ezaguerak, profesional eremuarekiko lotura, amaierako profila...
3. adierazlea. Lantzen diren gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunak edota ikasketa emaitzak		
0-1-2	3	4-5
0.- Ez dira azaltzen 1-2.- Aipatzen dira baina ez modu argi, sistematiko eta ordenatuan	Irakasgaiaren gaitasun espezifikoak baino ez dira aipatzen	4- Gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasunen zerrenda edota ikasketa-emaitzak 5-Osoa: zerrendez aparte, informazio osagarria eskaintzen du (azalpenak, loturak...)
4. adierazlea: Gai bakoitzari buruzko eduki teorikoak eta praktikoak jasotzen ditu		
0-1-2	3	4-5
0.- Ez 1-2.- Ikasgai-zerrenda azalekoa eta eskasa	Langaien zerrenda eta praktika motak zehazten dira	Ikasgaiak eta praktikak xehe azaltzen dira, betiere ikasleari begira
5. adierazlea: Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia azaltzen du eta irakaskuntza modalitate ezberdinek barne hartzen dituzten ikasketa jarduerak motak zehazten ditu		
0-1-2	3	4-5
Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia ez du ia argitzen eta ez ditu zehazten irakaskuntza modalitate bakoitzean egingo diren ikasketa jarduerak motak	Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologiari buruzko nolabaiteko informazioa eskaintzen du baita irakaskuntza modalitate bakoitzean egingo diren ikasketa jarduerak motei buruzkoa ere	Xehe azaltzen du zer irakaskuntza modalitate baliatuko diren eta nolako ikasketa jarduerak egingo diren modalitate bakoitzean
6. adierazlea: Ebaluaziorako sistemak irizpideak, tresnak eta horien ehunekoak jasotzen ditu		
0-1-2	3	4-5
0.- Ebaluazio sistema ez da zehazten 1-2.- Tresnak besterik ez ditu aipatzen	Ebaluaziorako sistemak tresnak eta ehunekoak aipatzen ditu	Ebaluaziorako sistemak irizpideak, tresnak eta ehunekoak aipatzen ditu

7. adierazlea: Irakaskuntza motaren arabera ikasleek behar duten denbora zehazten duen kronograma bat du		
0-1-2		3-4-5
0.-Ez		5.- Osatuta
8. adierazlea: Ikasketa baliabideak zehazten ditu (bibliografia, Interneteko helbideak, etab.)		
0	3	5
Ez	Bai	Bai, behar den bezala zehaztuak
9. adierazlea: Argia eta ikasleek erraz ulertzeko modukoa da		
0	1-2-3	4-5
Oso nahasia	Hizkera tekniko eta pedagogikoa edo luze-labur desegokia duena (luzeegia edo laburregia)	Hizkera ulergarria ikasleentzat eta luze-labur egokia

Irizpidea: * Ikasketa planari egokitutako Ikasle Gida (Irizpidearen garrantzia: 25etik 5)

10. adierazlea: Gidan jasotako gaitasunak edota ikasketa emaitzak bat datoz titulazioaren gaitasunekin. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena		
0		5
Ez		Bai
11. adierazlea: Gidan jasotako gaitasunak edota ikasketa emaitzak bat datoz Irakaskuntza Gidan aurreikusitako gaitasunekin. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena		
0		5
Ez		Bai
12. adierazlea: Ikasketa Planean irakaskuntza-modalitateei dagokienez egiten diren aurreikuspenak betetzen ditu. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena		
0		5
Ez		Bai

*Atal honetako amaierako emaitza 10.,11. eta 12. adierazleen bataz bestekoa izango da.

Irizpidea: Ikasle Gida berritzailea eta koherentea (Irizpidearen garrantzia: 25etik 5)

13. adierazlea: Badago koherentzia gaitasunen edota ikasketa-emaitzen, metodologiaren eta ebaluazioaren artean		
0	3	4-5
Ez	Nolabaiteko koherentzia igartzen da zenbait elementuren artean	Koherentzia nabarmena/erabatekoa da
14. adierazlea: Planifikatu diren lankidetzak eta banakako jardueren banaketa orekatua da		
0	3	4-5
Horietako bat bakarrik sustatzen da	Lankidetzak jardueraren bat planifikatzen da, alabaina, modu isolatuan	Planifikatutako taldeko eta banako jarduerak uztartuta agertzen dira.

15. adierazlea: Ebaluazio sistemak ikaskuntza-gaitasunak edota ikasketa emaitzak ebaluatzen ditu		
0-1-2	3	4-5
Soilik ezagutzak	Ezagutzak eta prozedura gaitasunak	Ezagutzak, prozedura gaitasunak eta ikasketa emaitzak
16. adierazlea: Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea proposatzen du, feedback egokia barne		
0-1-2	3	4-5
Amaierako ebaluazioa	Ebaluazio jarraitua eta, batez ere, bildumazkoa proposatzen du	Ebaluazio jarraitua eta hezitzailea proposatzen du, feedback egokia barne

Irizpidea: Ikasleek nola ikusten duten (Irizpidearen garrantzia: 25tik, 5)

17. adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako 1. itemari emandako erantzunak, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez. ("Programazioak etorkizunean izango dugun lanbidean beharko ditugun gaitasunak garatzea du helburu")*

18. adierazlea: *Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako 2. itemari emandako erantzunak, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez. ("Irakasgaiaren programak informazio nahikoa du irakasgaia ulertzeko")*

1.2. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena:

Irakaskuntzak bat egin beharko luke irakasgaiak sustatu nahi dituen gaitasunekin. Horrez gain, IKD ereduarekin ere bat egin beharko luke. Hau da, irakaskuntzak ikasleak izan behar ditu ardatz, eta ikasketa autonomia eta lankidetzaren sustatu behar du.

Ebaluazio prozesuen funtsezko elementuak dira emaitzak, berrikuspenak eta ebaluazioak komunikatzeko prozesuak. Irakasleek ebaluazio irizpideak ezarri eta jakinarazi behar dituzte, eta ikasleei beren aurrerapenen eta hobetu beharreko alderdien berri eman behar diete, ebaluazioa hezigarria eta jarraitua izan dadin.

Ikasleek, irakasleen irakas-jardueraz duten iritziari buruzko inkestaren bitartez, irakasgaiaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa eta garapena egokiak diren edo ez egiaztatu beharko dute.

Irizpidea: Metodo koherentea, metodologia aktibo eta kooperatiboarekin bat egiten duena (IKD) (Irizpidearen pisua: 25etik 10)		
19. adierazlea: Ikasketa jarduerak lankidetzat-taldeetan garatzen dira, berdinen arteko laguntza eta ikaskuntza egiten da, hortaz, taldeko kideen inplikazioa ezaugarri nagusi da		
0-1-2	3	4-5
Erantsitako jardueran ez da taldean garatuko den lan egoerarik aipatzen ezta taldeko eginkizunik ere. Salbuespen dira horrelakoak, ia anekdota hutsa	Erantsitako jardueran talde lana nolabait antzematen da baina egoera isolatuak dira horrelakoak. Ez dute eragin handirik azken kalifikazioan	Erantsitako jardueraren zati esangarri bat taldeka egiten da, eta lankidetzaz azpimarratzen da. Eginkizunaren entregatzekoak eta talde lana bera ebaluatzen dira
20. adierazlea: Ikasketa jardueren eskakizunek ikasleak ikaskuntza prozesua autoerregulatza, autonomiara eta ikasten ikastera bultzatzen dituzte		
0-1-2	3	4-5
Prozesua itxia da; autonomia guztiz mugatuta dago. Ez dago aukerarik prozesua kritikoki analizatzeko, autoebaluaziorako...	Batzuetan, ikasleek antolatu egin behar dute emandako jardueraren lanak zehaztu eta garatzeko. Ez dago aukera espezifikorik autokritika egiteko	Aukera dago prozedurak edo gaiak erabakitzeo, prozesuak diseinatzeko eta kritikoki berraztertzeo
21. adierazlea: Ikasketa jarduerak bat egiten dute irakasgaiak lortu nahi dituen ikaskuntza emaitzekin		
0-1-2	3	4-5
Emandako jardueraren zereginak ez dira argi mugatzen. Eta, hala egiten denean, ez datoz bat irakasgaiak aurreikusten dituen gaitasunekin	Ikaskuntza emaitzak oso mugatuta agertzen ez badira ere, nolabaiteko koherentzia sumatzen da irakasgaiaren gaitasunen eta emandako jardueraren eginkizunen artean	Harreman argia sumatzen da emandako jardueraren zereginen eta espresuki formulatutako ikaskuntza emaitzen artean
22. adierazlea: Ikasketa jarduerak planteamendu metodologiko aktiboa dute		
0-1-2	3	4-5
Ikasleen jarduna informazioa jaso eta ikasketa pertsonalera mugatzen da ia erabat	Apunteak jaso eta ikastea, ariketa zereginekin osatzen da eta praktikaren bat egiten da edo txostenen bat eskatzen da	Emandako jardueran, ikasleak informazioa bilatu, analizatu eta kritikoki arrazonatzeo prozesuetan aktiboki inplikatu behar ditu
23. adierazlea: Irakasleek galderak egiten dituzte, tresnak eskaintzen dituzte, trukerako aukerak ematen dituzte, feedback eskaintzen dute...		
0-1-2	3	4-5
Irakasleen jarduna azalpen eginkizunari loturik dago. Ez da antzematen tutoretza-jardura aktiborik	Irakasleek zereginak eta jarduerak proposatzen dituzte azalpenen osagarri	Aurkeztutako jardueran ikaskuntza erraztera zeharo bideratutako irakaskuntza jarduna antzematen da. Tutoretza-sistema aktiboa agerian dago.

24. adierazlea: Irakasgaia emateko orduan, teoria eta praktika lantzen dira		
0-1-2	3	4-5
Dimentsio praktikoak hutsala dirudi edo teoriatik zeharo bereizi eta desintegratuta aurkezten da	Saio praktikoak saio teorikoen azalpenen osagarri dira	Praktika eta teoria txandakatzen dira, elkarren osagarri, eta elkarri erantzuten diote. Saio praktikoek presentzia garrantzitsua dute

Irizpidea: Ebaluazio koherentea, jarraitua eta hezitzailea (Irizpidearen garrantzia: 25etik 10)		
25. adierazlea: Aldez aurretik ezarritako eta ikasleei zehatz-mehatz jakinarazitako irizpide garbi batzuen arabera ebaluatzen da. Modu horretan, ebaluazioaren bidez ikaskuntza-prozesua bera bideratzen da		
0-1-2	3	4-5
Ez dirudi ikasleei ebaluazio irizpideei buruzko informazio zehatza ematen zaienik	Ebaluazio irizpide orokorrak aurkezten dira. Irizpideak bat datoz Ikasle Gidan jasotakoekin	Irizpideak idatziz eskaintzen dira eta zehatz-mehatz aurkezten zaizkie ikasleei
26. adierazlea: Ebaluazioaren zati handi bat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar lantzen da; modu horretan, hobekuntzak eta aldaketak egin daitezke		
0-1-2	3	4-5
Ebaluazio osoa edo ia osoa (entregatzekoak, azterketak) azken tartean edo ikasgaia amaitu eta gero biltzen da	Zenbait entregatzeko egiten dira ikasgaiaren garapenean zehar. Zereginetako batzuk aintzat hartzen dira irakasgaia ebaluatzerakoan	Ebaluatzen diren eginkizunak, entregatzekoak, praktikak..., irakasgaia garatu ahala egin eta zuzentzen dira.
27. adierazlea: Ikasleek beren lan akademikoen kalitateari buruzko informazio zehatza eta egokia garaiz jasotzen dute, eta irakasleek hobetzeko jarraibideak ematen dizkiete		
0-1-2	3	4-5
Ez da aipatzen eta ezta berariaz deskribatzen nolako feedbacka eskaintzen eta noiz/nola eskainiko den. Deskribatzen dena hurbilago dago "emaitzak argitaratu eta erreklamazioak egin" eredutik	Jardueraren bat zuzenduta itzultzen da. Oro har, iruzkintzen dira berraztertutako entregatzekoetan antzeman diren zailtasun eta gabezia nagusiak	Emaitzak komunikatu egiten dira. Aurreikusten dira feedback egoerak. Hobekuntzarako proposamen eta iradokizun zehatz eta pertsonalizatuak eskaintzen dira.
28. adierazlea: Badago koherentzia gaitasunen, metodologiaren, jardueren eta ebaluazioaren artean		
0-1-2	3	4-5
Ez dirudi Jardueraren jarraibideek, ezaugarriek edota ebaluazio-irizpideek harreman argia dutenik gaitasunekin eta metodologiarekin	Ez daude elementu guztiak lerrokaturik	Agerikoa da gaitasunen, metodologiaren, jardueren eta ebaluazio irizpideen arteko korrespondentzia.

<i>Irizpidea: Ikasleek nola ikusten duten (Irizpidearen garrantzia: 25etik, 5)</i>
29. adierazlea: <i>Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Irakaskuntza metodologia" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez</i>
30. adierazlea: <i>Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Irakaskuntzaren garapena" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez</i>
31. adierazlea: <i>Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Ikasleekiko elkarrekintza" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez</i>
32. adierazlea: <i>Ikasleek duten iritziari buruzko inkestako "Ikasketen ebaluazioa" dimentsioko puntuazioa, autotxostena egiteko aukeratu den irakasgaiari dagokionez</i>

2. DIMENTSIOA.- EMAITZAK

2. *Dimentsioaren helburua*: Emaitza akademikoak eta ikasleek irakaskuntza jarduerarekin duten asebetetze maila balioestea.

2.1. Arrakasta tasak -(Irizpidearen garrantzia: 20tik 10)

Arrakasta-tasen ebaluazioa irakasgai-talde bakoitzari emandako puntuazioaren batez besteko aritmetikoaren bidez lortzen da. Kontuan hartzekoa da irakasgai-talde guztiak ez direla beti balioesten :

- 1- Irakasleak irakasgaiaren kredituen % 75etik gora ematen badu, irakasgai-ikastalde guztiak balioetsiko dira.
- 2- Irakasleak irakasgaiaren kredituen % 75etik gora ematen badu, irakasgai-ikastalderik egon ezean, kreditu gehien eman dituen taldea hautatuko da. Ikastalde-irakasgai bat baino gehiago badago kredituen portzentaje berak dutenak, horiek guztiak balioetsiko dira.

Analisia ikasturteka egiten da eta ikastalde-irakasgai bakoitzari emaniko puntuazioa (**IIP**), honela kalkulatzeko da:

$IIP = 0$	baldin eta $vp < 50$ baino txikiagoa bada
$IIP = 1/3 \cdot (vp - 50) \cdot fda$	baldin eta $50 \leq vp \leq 80$
$IIP = 10$	baldin eta $vp > 80$ baino handiagoa bada

non **vp** irakaskuntza-egoeraren irakasgai-ikastalde arrakasta-tasa den eta **fda**-k, irakasgaiaren zailtasunaren faktoreak, 1,10 balioa hartzen duen baldin eta ikasleen % 50ak irakasgaia oso zaila edo zaila dela aitortzen badute. Hala ez bada, irakasgaiaren zailtasunaren faktorearen balio 1 izango da.

2.2. Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta

Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren ebaluazioa lortzeko irakaslearen laburpen-txosteneko 25 itemaren balioa inkesta egindako talde-kopuruaren portzentajearen arabera

Irizpidea: Irakasleen asebetetze maila (Irizpidearen garrantzia: 20tik 10)					
Adierazlea: Irakasleen iritzi inkestako 25. itemean lortutako puntuazioa, egindako inkestaren portzentajearen arabera ponderatura					
0 puntu	2 puntu* <i>fpe</i>	4 puntu* <i>fpe</i>	6 puntu* <i>fpe</i>	8 puntu* <i>fpe</i>	10 puntu* <i>fpe</i>
25 itema $\leq 2,5$	$2,5 < 25 \text{ itema} < 2,7$	$2,7 \leq 25 \text{ itema} < 3$	$3 \leq 25 \text{ itema} \leq 3,5$	$3,5 < 25 \text{ itema} \leq 4,0$	25 itema $> 4,0$

non irakaslearen txosteneko **25 itemaren** balioa (*Oro har, uste dut irakasle ona dela*) ebaluazio-epean inkestatutako irakaskuntza egoera guztien batez bestekoa den eta **fpe**, inkestak ponderatzen dituen faktorea, honela kalkulatzeko den: **pe** inkestatu beharreko irakaskuntza egoera guztiekiko portzentajea izanik.

$fpe = 0$	baldin eta $pe < 0,5$ baino txikiagoa bada
$fpe = 0,5 + (pe - 0,5) \cdot 2$	baldin eta $pe \in [0,5 - 0,75]$ artean badago, biak barne.
$fpe = 1$	baldin eta $pe > 0,75$ baino handiagoa bada.

3. DIMENTSIOA. IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALA

3. *dimentsioaren helburua*: UPV/EHUko irakasleek irakaskuntza berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako duten orientazio maila balioestea, bikaintasuna jomugan hartuta.

3. dimentsioan, azpidimentsioen gehieneko balioen batura 46 puntura heltzen den arren, gehieneko puntuazioa beti 30 puntukoa izango da. Jarraian, dimentsio honetako irizpideak ikus ditzakegu zehaztuta:

3.1 Irakats lidergoa

Ekintza	Puntuak emateko irizpideak (Gehenez 6 puntu)
UPV/EHUko batzordeekin lotura duten arduradunak eta kideak ¹ . Koordinatzaileak eta irakats lidergoan parte hartzen duten kargu-akademikoak.	Zuzendaritza/koordinazioa: 2 puntu ekintza eta urte bakoitzeko Lankidetzak: Puntu 1 ekintza eta urte bakoitzeko
Irakasgaiaren koordinatzailea ²	Puntu 1 urte eta irakasgai bakoitzeko
Goi hezkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuekin loturiko beste ekintza batzuk	0,5 puntu ekintza eta urte bakoitzeko.

3.2. Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak

Azpidimentsio honen puntuazioa lortzeko, automatikoki batuko dira irakasleari, ebaluatu beharreko aldian ikasleen lanak gainbegiratzeagatik, GAUR aplikazioan aitortutako kredituak. Honako taula honen arabera puntuatuko da.

Irizpidea: Ikasleen autonomia sustatzea (Gehenez 10 puntu)					
Adierazlea: GAURen aintzatetsitako kredituak					
0 puntu	2 puntu	4 puntu	6 puntu	8 puntu	10 puntu
$krd=0$	$0 < krd < 2$	$2 \leq krd < 5$	$5 \leq krd < 7$	$7 \leq krd < 10$	$krd \geq 10$

¹ Kontuan hartuko dira, besteak beste, akademia antolakuntzako batzordeak, kalitate batzordeak, berdintasunarena, euskararena, praktikena, eta titulu/ modulu/ ikasturteko koordinatzaileak.

² Bakarrik hartuko dira kontuan ikastegi bat baino gehiago edota hiru irakasle edo gehiago dituzten koordinazio ekintzak.

3.3 Prestakuntza

3.3.1 Jasotako prestakuntza

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
3.3.1.1. Graduen curriculum garapena	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.1.2. Irakaskuntza planifikazioaren hobekuntza	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.1.3. Goi mailako hezkuntzan irakaskuntza-ikaskuntzarako berrikuntza metodologikoak	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.1.4. Goi mailako hezkuntzara aplikatutako IKT	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko (gehienez 1,5 puntu)
3.3.1.5. Eleaniztasuna	
"Terminologia Sareak Ehunduz"	Ikastaro osoak "Terminologia Sareak Ehunduz" (hiru maila jasotzen du); 2 puntu
	- Lehenengo maila "Materialen hizkuntza kalitatearen hobekuntza"; 0,25 puntu
	- Bigarren maila "Terminoaren glosarioa"; puntu 1
	- Hirugarren maila "Hiztegi terminologikoa"; 0,75 puntu
Teaching Your subject in English: Improving Your Language and Teaching skills (TYSE)	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu)
Beste ikastaro batzuk	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu)
3.3.1.6. Irakaskuntzarekin zerikusia duen beste prestakuntza mota bat	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 1,5 puntu)

3.3.2. Emandako prestakuntza

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
3.3.2.1. Graduen curriculum garapena	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.2.2. Irakaskuntza planifikazioaren hobekuntza	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.2.3. Goi mailako hezkuntzan irakaskuntza-ikaskuntzarako berrikuntza metodologikoak	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
3.3.2.4. Goi mailako hezkuntzara aplikatutako IKT	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko (gehienez 1,5 puntu)

3.3.2.5.Eleaniztasuna	
Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)	1 puntu 1 ECTS bakoitzeko edo 0,5 puntu 10 orduko
Teaching Your subject in English: Improving Your Language and Teaching skills (TYSE)	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu)
Beste ikastaro batzuk	0,5 puntu 10 orduko (gehienez 2 puntu)
3.3.2.6. Irakaskuntzarekin zerikusia duen beste prestakuntza mota bat	0,5 puntu ikastaro bera errepikatuta irakasten bada, gehienez ere, 2 puntu. Puntu 1, irakasten diren ikastaroak desberdinak badira

3.4 Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak Goi Hezkuntzan

3.4.1. Hezkuntza berrikuntza goi hezkuntzan

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
Hezkuntza berrikuntzari buruzko proiektuetan parte hartzea	- Zuzendaritza: <ul style="list-style-type: none"> • 2 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa UPV/EHUkoa bada. • 2,5 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa kanpokoak bada. - Parte hartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Puntu 1 egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa UPV/EHUkoa bada. • 1,5 puntu egiaztatutako urte bakoitzeko, finantzaketa kanpokoak bada.
Hezkuntza berrikuntzari buruzko kongresuetan aurkeztutako komunikazioak	Puntu 1 komunikazio bakoitzeko

3.4.2. Goi hezkuntzako irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak (ez dira kontuan hartuko kongresuetako aktak)

Argitalpenak	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
Indexatutako aldizkarietako artikulak	Gehienez 2 puntu artikuluko bakoitzeko
Indexatuta ez dauden aldizkarietako artikulak	Gehienez puntu 1 artikuluko bakoitzeko
Kanpoko ebaluazioa duten argitaletxeetan argitaratutako liburuak	Gehienez 5 puntu liburuko
Kanpoko ebaluazioa ez duten argitaletxeetan argitaratutako liburuak	Gehienez 2,5 puntu liburuko
Kanpoko ebaluazioa duten argitaletxeetan argitaratutako liburuen kapituluak	Gehienez puntu 1 kapituluko
Kanpoko ebaluazioa ez duten argitaletxeetan argitaratutako liburuen kapituluak	Gehienez 0,5 puntu kapituluko
Autoikaskuntzarako gune ireki batean argitaratutako irakaskuntzarako materiala	Gehienez 2 puntu argitalpen bakoitzeko

3.5 Hedapena

Ekintza	Puntuak emateko irizpidea (Gehienez 6 puntu)
Eskolak emateko astebeteko egonaldiak	Puntu 1 aste bakoitzeko, gehienez 3 puntu
Dibulgazio jarduerak (Zientziaren Astea, Zientzia Bizirik, tailerrak, eta abar)	Gehienez 3 puntu
Irakaskuntzarekin edo ezagutza hedatzearekin lotutako sariak	Gehienez 3 puntu
Irakaskuntzarekin zerikusia duten noizbehinkako hitzaldiak	Gehienez 0,5 puntu, hitzaldi bakoitzeko
Unibertsitate orientazioa jardueretan parte hartzea eta beste edozein motatako parte hartzea	Gehienez 0,5 puntu urte bakoitzeko
Unibertsitate-ikasketa ofizialetan zuzendutako edo gainbegiratutako lanak	Gehienez 10 puntu, betiere, emandako kredituen arabera